

# Mendebaldeko haizeak dakarrena

**B**ost urte dira Txillar-degi gure artean joan zela, eta hamar, berriz, bere azken liburua kaleratu zuela. Bere estreinakoa saio-liburu gogoan-garri hari (*Huntaz eta hartaz*) keinu eginez, *Horretaz* titulatu zuen zazpi saiakera laburrez osaturiko bilduma, non bere gai kutunetako batzuk lantzen dituen antiguarrak: Ameriketako indioen genozidioa, giza ebo-luzioa, erlijioa, antropozentris-moa, astronomia, Sartre intelektual enigmatuaren eredu... eta gaur idazteko aitzakia ematen didana: Galizia eta Rosalia.

Galizia bere bigarren aberri-tzat zuela aitortzen zuen Txillar-degi, 50 urte lehenago soldadutza egitera bertara eraman zutenetik, eta segitzen zuen azaltzen zer erakarri zuen herrialde hartatik: lehenik, haren paisaiak, malenkonია ezin esan halako bat pizten zuena, eta bigarren (denboran, ez garrantzian) galiziar herriaren patu hitza, Espainiaren kolonia

izatera zigortua gizaldi eta gizaldietan, metropolira begira bizi zen jauntxo kasta baten mende, bere lurrian ustiatua edo emigrazioa egotzia, kanpokoek eta gero bertakoez gutxietsitako hizkuntza baten gainbehera jasatera behartua.

Galiziako berpizkunde literario eta politikoa XIX. mendearren erdialdera hasi zela gogorarazten digu Alvarez Enparantzak artikulu horretan, gurean baino lehenago, eta bertan esangura berezia izan zuelan Rosalia de Castro poeta erromantikoak (baita haren senar Manuel Murguik ere). Hain zuzen, zorione-koak gara euskaldun letrazaleak, egunotan eman baita argitara Rosaliaren poema-antologia bat, Koldo Izagirrek euskaratua. Hor irakurri ahalko duzu, jatorrizkoan bezain gozo, eder eta samrin: «*Agur ibai, agur iturri / agur mendi-errekato / agur nire begion bista / itzuliko naiz akaso*» edo «*Jainkoari diot eskutzen / gartzelar gorrotagarriok, / lehenago hil daitezen galegoak / zuengana*



**ARKUPEAN**  
Xabier Mendiguren Elizegi

**Txillardegik eman dit idazteko hizpidea, Izagirreraren itzulpenak serendipitua, baina, izatez, sute ikaragarri bat behar izan du Galizia badela oroitzeko**

*hazkurri eske baino*» edo «*Hark alde eta honek alde / eta denek, denek alde / Galizia, landuko zaituzten / gizonik gabe zaude*».

Txillardegik eman dit idazteko hizpidea, Izagirreraren itzulpenak serendipitua, baina, izatez, sute ikaragarri bat behar izan du Galizia badela oroitzeko. Lurra kiskali, herri eta hirien aldirietara iritsi, etxe eta aziendak jan eta jendea ere hil duen sutzar beldurgarria (Jose Luisen kontzientzia-hartze hartan bezala, lehenik «*a nosa terra*» suntsitu duena eta gero gizon-emakumeen bizitza beti makurra).

Izan ere, asteak bakarrik ez, hilabeteak eta are urteak daramatzaugu Kataluniara begira, eta gisakoa da, mendetako menderakuntza irailu dezakeen borrokan ari baitira han, eta gu ere geure historia aldatzeko gauza izan gintezkeela oroitarazten. Baina begi batekin ekialdera bezala, komeni da bestearekin mendebaldera begiratzea ere, normalean laino beltzak eta

egunotan egur errearen sunda ekarri digun aldera. Urte batzuk badirra idazle euskaldun, katalan eta galegoak biltzen gintuen Galeusca ospatzen ez dela; ez da dotoreegi esatea, baina katalanen interes faltaz geratu da bertan behera (Espainia plurinazionala ez baizik munduko nazioen arteko bat izan nahi dutela jabetu, eta besteak atzeratuago gabiltzala konturatu zirelako edo).

Denok ditugu, familia zabalean, lehengusu-lehengusina eder, interesgarri, guaiagoak, eta beste batzuk, ilunago, motzago, kutreagoak. Eta normala da gehiago gogoratzea ederrez itsusiez baino, sarriago gonbidatzea batzuk besteak baino, haien arri-mua estimatuagoa izatea hauena baino. Normala bai, baina ez guztiz osasungarria. Argitasunean gora egiten saiatzea ona baita denontzat, baina ez gure makurdurei ezikusit egitea. Eta guk ere asko dugu makurretik. «*Ai, Galizia, lotan aingeru ametsak egiten dituen hori / eta negarra esnatutakoan*».

## ZUZENDARIARI

### Gipuzkoako Diputazioa noraezean

**E**nteratu naizenez, errauskailua geratu zuten pertsonen ordainarazi nahi die gelditze horren ondorio ekonomikoa. Benetan berriak asaldatu nau, garai hartako agintariak herriak emandako agindua betetzea besterik ez baitzuten egin. Gainera, kasualitatez konpensazio ekonomiko hori eskatzen dutenek beste garai batean Gipuzkoako ogasunari egundoko diru-galera eragin zioten. EAJ-koek egindako planean PIGRUGean aurreikusita zeduen hiru konpost plantatik bat besterik egin ezenez, Gipuzkoako zenbait herritan materia organikoa biltzen hasi zirenean %40 zabortegira zihonan. Diputazioko aurreko agintariak, hots, EH Bildukoak, materia organikoa tratatzeko planta nahikorik ez zegoela ikusirik materia mota hori Funeseraino eramatea erabaki zuten. Hondakin horien garraio-arengatik gipuzkoarrok dirutza ordaindu behar izan genuen; beraz, EAJko erabakiak egundoko galera eragin zigun. Horrekin, nire ustez, Bilduk nahikoa argu

dio dauka garai hartako agintariaren aurka salaketa bat aurkezteko. Halere, ni kasu honetan haratago joango nintzateke, batez ere, hiriburu edo herri handietan hondakin-bilketa eraginorik ez egiteagatik kutsadura itzela sortuz gain, zergadunen dirua xahutzen ari delako. Adibiderik onena Donostia da, urtero produzitzen duen 30.000 tona errefusetik erraz 22.000 birzikla daitezke. 22.000 tona horiek lurperatzeak (tona bakoitzeko 173 euro) 3.806.000 euro balio du. Gainera, horri gehitu behar diogu papera eta ontziak birziklatzeak ematen duen dirutza: guztira, urtero 5.000.000 euro inguru zaborrera doaz. Uste dut idazki honetan emandako motiboak nahikoak direla Diputazioko gaurko agintariak auzitara eramateko! Bukatu baino lehen, mundu guztia gonbidatu nahi dugu Andoainen urriaren 21ean egingo den errausztegiaren aurkako manifestazioa!

**Patxi Aznar Bellido.** Andoain.

**ZUZENKETA:** BERRIAK atzo argitaratu behar zuen *Gizarte solidarioa* gehigarria, baina ez zuen argitaratu, hutssegite tekniko baten ondorioz. Gaur argitaratu du.

## TWITTERREN MOKOKA

- Etxean nahi zaituztegu! *Us volem a casa* @jcuixart @jordisanchezp #LlibertatJordis»
- Jordi Jauna (@LandaJauna)
- «Gu beti Kataluniarekin» Gaur bereziki @jordisanchezp-@assemblea ta @jcuixart-@omnium-ekin #Llibertat #Us-VolemACasa
- Kike Amonaritz (@KikeAmonaritz)
- Giza eskubideen urraketa demokrazia faltaren adierazle da. Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart, eredu zarete. Eutsi! #LlibertatJordis #Katalunia»
- Imanol Lasa Zeberio (@imanollasa)
- «Ni hain haserre banago, ezin imajinatu zelan egongo diren katalan demokraziatzaleak»
- Ana I. Morales (@AnaisNi)
- Eskubide politikoen jazarpenak erantzun argia merezi du: harreman diplomatiko oro hautsi behar dugu Espainiarekin. #JordisAskatu»
- Mario Zubiaga (@zuribia)
- 2017an Europa mendebaldea esaten zion jendarte nonbait demokrazian arreratuenean. Ezin diogu ANrekin sumintzeari utzi #ezindugonartu»
- Idurre Eskisabel (@idureski)
- Indarkeriarik gabe ideia guztiak defendablalablalabla...»
- Bitor (@bitoralonso)
- Katalunia. Gero eta gargiago dago:

- depentziaren kostea askoz garestiago da inepentziarena baino. Jordiak askatu»
- Txema Ramirez (@txem Ramirez)
- Besarkada bero bat Oñaititik bi Jordiekin. Herria zuekin. Ez dakit interna, externa, zentrala.. baina Europak arazo bat du #LlibertatJordis»
- Mikel Bilan (@mikelbilanber)
- Baina ez zara soziologo analista, lehendakaria zara! Erabaki politikorik bai, @iurkullu lehendakaria?»
- Karmelo Landa (@karmelolanda)
- «Ez dugu PPrekin jarraituko Espainian eta PSErekin hautsiko dugu Euskadina», hori da esan behar duzuen, eta ez hitz hutsai honiek»
- Asier Sarasua (@asiersar)
- 22:00etan BURRUNBA!!! Kataluniako herriaren desobediencia zibila espertzeren ari dira!!!»
- Gaizka Aranguren (@gaizkaranguren)
- Egun tristea askatasun aldarrikapenarentzat. Detenidos por manifestarse. Demokrazia eta erabakitze eskubidearen alde #LlibertatJordis
- Amalia Arrenal (@amalia av)
- Replying to @iurkullu Hori da esan behar dozuna? Hobeto ixilik, non dago elkartasuna? Non gaitzespena? #LlibertatJordis #JordisAskatu»
- Iker (@ikertzeko)



BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tartesak baine, eta BERRIAK motzeto eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta hema adierazita: Berría, Martín Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus